

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2015eko UZTAILAREN 9an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2015eko uztailaren 9an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 20.30 orduetan, Aneli Urbietta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK:     Gotzon Jauregi Sarasola  
                      Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre  
                      Ander Leon Nanclares  
                      Aritz Sarria Saraqueta  
                      Angel Serrano Martinez  
                      Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udaltzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2015eko ekainaren 13an egindako Udaletxea eratzeko bilkura./ Sesión Plenaria de Constitución de fecha 13 de junio de 2015.**
  - **2015eko ekainaren 25ean egindako ez-ohiko bilkura./Sesión extraordinaria de fecha 25 de junio de 2015.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 01/2015 Kreditu Aldaketaren hasierako onspena, hala bada./ Aprobación inicial del expediente 01/2015 de modificación de créditos.**
- 4. Larraulgo Abeletxe baserriaren teilatua eraberritzeko obra baimena eskaera, J.M.K./Solicitud de rehabilitación de tejado del Caserío Abeletxe de Larraul, J.M.K.**
- 5. Larraulgo Larrañaga baserrian berritze lanak egiteko obra baimena eskera, I.U./Solicitud de licencia de obras para trabajos de renovación en el Caserío Larrañaga de Larraul, I.U.**
- 6. Larraulgo eskolako komunen moldaketaren proiektua onestea, eta lanen esleipena./ Aprobación de las obras de ejecución de baños en la Escuela de Larraul y su adjudicación.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. Gipuzkoako Bertsozale Elkartek eginiko eskaeraren azterketa./ Estudio de la solicitud realizada por Gipuzkoako Bertsozale Elkartek.
8. 2015 urterako udal langileen egutegiak onartzea. /Aprobación de los calendarios laborales de los trabajadores del Ayuntamiento de Larraul.
9. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
10. Beste batzuk/Otros.
11. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2015 urteko ekainaren 13ko Udala eratzeko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.
- ▣ 2015 urteko ekainaren 25eko Udalbatzaren ez-ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

15/2015 Alkatezta Ebazpena, ekainaren 16koa, Larraulgo Izagirre baserrikoei, 1. Hiruhilabeteko ur erreziboarengatik 134,13 euro itzultzea, ebazten duena.

16/2015 Alkatezta Ebazpena, ekainaren 26koa, 2015eko 1/2015 Kreditu Aldaketaren espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.


17/2015 Alkatezta Ebazpena, ekainaren 23koa, Larraulgo Herritarrak zerrendako eta udaleko zinegotziak diren Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre 1. Alkateordea izendatzea eta Ander Leon Nanclares 2. Alkateorde izendatzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **01/2015 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA**

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, Felix Joaquin Asensio Robles zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengo absolutoz, honako hau


### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

### KREDITU GEHIKUNTZAK

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.100.912.00.01 2015	GOI-KARGUEN ORDAINSARIAK: ALKATEA	0,00	3.000,00	3.000,00
1 0000.160.912.00.01 2015	GIZARTE SEGURANTZA: ALKATEA	0,00	1.000,00	1.000,00
<b>GUZTIRA</b>		0,00	4.000,00	4.000,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2015	GERAKINAK	4.000,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>4.000,00</b>



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

### LAUGARREN PUNTUA

### **LARRAULGO ABELETXE BASERRIAREN TEILATUA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.M.K.**

Ikusirik J.M.K.I. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Abeletxe baserriaren teilatua eraberritzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak 2015eko ekainaren 29an eginiko txostenean dioena:

### **“LARRAULGO ABELETXE BASERRIAREN TEILATUA ERABERRITZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*J.M.K.I. jaunak, Larraulgo Abeletxe baserriaren teilatua eraberritzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontu bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*Aurkeztutako aurrekontuaren arabera, teilatuaren konponketa, gaur eguneko teila eta teilatu hodiak ordezkatzeari izango da, teilatura ateratzeko leiho berri bat eginik ere. Lan hauen aurrekontua, 13.350€-koa da (BEZ-a gabe).*

*Abeletxe baserria, Larraulgo lur ez hiritargarriaren barruan kokatua dago, D.20 produkzio zonaldean bereziki. Larraulgo arau subsidiarioen arabera, eraikinak udal katalogazioa du. Hau honela izanik, Foru Aldundiko alde aurreko txostena ez da beharrezkoa izango.*


*Larraulgo Arau Subsidiarioen 48º artikuluan eraikinen kanpo itxuraren baldintzak finkatzen dira, eta 66º artikuluan baserrien zaharberritzearenak.*

#### Artículo 48.-Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

*-Con caracter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.*

*-Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.*

*-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### Artículo 66.-Reforma y Rehabilitación de los caseríos existentes

1.-Como criterio general, en cualquier obra de reforma y rehabilitación de los caseríos se deberán respetar las características fundamentales de los mismos.

2.-Obras que afecten a los elementos exteriores.

Se realizarán manteniendo el aspecto de terminación exterior del caserío primitivo en la composición de volúmenes, cubiertas, vuelos, huecos de fechada, etc.

Se mantendrán todos los elementos arquitectonicos o artísticos como escudos, dinteles, frentes de fachada, etc. De especial valor que el edificio pueda tener.

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datozenez, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.

*\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

*\*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.*

Ondoren, Felix Joaquin Asensio zinegotziak hitza hartzen du adierazteko, Larraulgo Herritar hautesle elkarteko kideak berarekin aurretik ez baditu Udalbatzarrerako gaiak tratatzen, bera abstenitu egingo dela puntu guztietan.

Gaia azterturik, bertaratuek, Felix Joaquin Asensio zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengo absolutoz ondorengo,

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: J.M.K.I. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Abeletxe baserriaren teilatua eraberritzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen baditu.


BIGARRENA: J.M.K.I. jaunari jakiranazi, obrak amaitzean, Udaletxe honetan honen berri emango duela, Udal Aholkulari Teknikoak dagokion ikuskaritza lanak egingo duelarik.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### BOSTGARREN PUNTUA

**LARRAULGO LARRAÑAGA BASERRIAN BERRITZE LANAK EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik I.U. jaunak eginiko eskaera, hau da, Larraulgo Larrañaga baserrian berritze lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, Udal Aholkulari Teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektuak 2015eko ekainaren 29an eginiko txostenean dioena:

### **“LARRAULGO LARRAÑAGA BASERRIAN BERRITZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*I.U.A. jaunak, Larraulgo Larrañaga etxeko lehenengo solairuan barne berritze lanak egiteko baimena eskatzen du, lanen batz besteko aurrekontua eta plano batzuk aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik ZERA ADIERAZTEN DUT:*

*Aurkeztutako eskaera, Larrañaga etxeko lehenengo solairuan tabike batzuk aldatuz, dauden 4 gelatik, 3 lortu nahi direla esaten da. Planoen arabera, egitura ez da ukitzen. Aurrekontuan etxeko barne lanak deskribatzen dira; lurra eta ate berriak jarri, tabikeak aldatu, zokaloak jarri, paretak margotu, argindarra berritu, etb... Lan hauen aurrekontua BEZ-a gabe 6.134€-koa da.*

*Hiri antolaketako 14 artikulua arabera, eraikinen antolaketa aldatzen duten obrek, hirigintza lizentzia behar dute.*

*Larrañaga etxea, Larraulgo lur ez hiritargarrian kokatua dago, bereziki D20 produkzio zonaldean. Etxeak ez du inolako katalogazio berezirik.*

*Sortutako barne espazio berriek, Larraulgo lur ez urbanizagarriaren 53º artikulua bete beharko dute.*

#### Artículo 53.- Condiciones de habitabilidad


*.-En las edificaciones autorizadas en Suelo No Urbanizable serán de aplicación, en su caso, las condiciones de habitabilidad referentes a dimensiones mínimas de las piezas, ventilación e iluminación establecidas para espacios similares en las ordenanzas correspondientes al Suelo Urbano.*

*Arau subsidiarioen 66º artikulua arabera, egungo baserrien eraberritzea eta birgaitzea lehentasun osoz izango dute landa eraikinarekin lotutako lanak burutzean.*

*Beraz, barne lanek aurrekoa betetzen badute, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.*

*\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

*\*Lanak amaitzean, eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.*



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, bertaratuek, Felix Joaquin Asensio zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengo absolutuz ondorengo,

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA: I.U.A. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Larrañaga baserrian berritze lanak egiteko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: I.U.A. jaunari jakirana raztea, obrak amaitzean, Udaletxe honetan honen berri emango duela, Udal Aholkulari Teknikoak dagokion ikuskaritza lanak egingo duelarik.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

### SEIGARREN PUNTUA

### **LARRAULGO ESKOLAKO KOMUNEN MOLDAKETAREN PROIEKTUA ONESTE, ETA LANEN ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Eskolako komunen moldaketa lanak burutu behar direla, beharrak horrela eskatuta.


Ikusirik, Eba Erkizia Brion Udal Aholkulari teknikoak prestatu duela Larraulgo eskolako komunen moldaketaren proiektua.

Ikusirik, aipaturiko lanak burutzeko, hiru aurrekontu eskatu direla, (aipaturiko lanak, kontratu txiki baten prozedura eramango dute) ondorengoak izanik:

- Pedro Diaz Legarre
- Murgil Eraikuntzak, S.L.
- Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzuak S.L.

Udal Aholkulari teknikoak hiru aurrekontuak aztertu ondoren, ondorengo txostena egiten du:

### ***“LARRAULGO ESKOLAKO KOMUNEN MOLDAKETAK EGITEKO ESKAINTZA EKONOMIKOEI TXOSTEN TEKNIKOA***



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo eskolako komunen moldaketak egiteko aurkeztu diren hiru eskaintza ekonomikoak aztertu ondoren, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

*Pedro Diaz Legarre, Murgil Eraikuntzak S.L. eta Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzuak S.L. enpresek aurkeztutako aurrekontuak jasotzen dira.*

*Txosten honetan, proposamen ekonomikoa bakarrik baloratu da, gonbidapenean ez bait da beste inolako baldintza, gaitasun edo proposamen teknikorik eskatu.*

*Hiru enpresa hauen proposamen ekonomikoen arteko konparaketa zuhurrena izateko, neurketa eta partida berdinen arteko konparaketa egin da. Eskaintza guzietan udal proiektuaren partida eta neurriak jarraitu dituzte.*

*Eskolako komunen moldaketa egiteko proposamenen arteko balorazioa datorren taulan laburtua ikus daiteke:*

Eskolako komunak	C01	C02	C03	C04	C05	C06	Denetara
Pedro Diaz	2.911,90	7.557,02	6.957,10	1.630,00	1.359,00	1.063,00	21.478,02
MURGIL	2.878,74	5.475,37	4.185,00	983,41	1.073,00	500,03	15.095,55
OSTARBI	2.505,10	6.660,70	6.753,14	1.347,27	928,80	350,97	18.545,98

*Emaitza hauen arabera, MURGIL ERAIKUNTZAK S.L. enpresak, 15.095,55+ BEZ-a aurrekontuarekin, Larraulgo eskolako komunen moldaketa egiteko preziorik merkeena aurkeztu du.*

*\*Lanak irailaren 1-a baino lehenago bukatuak egon beharko dute, sinatzen duen teknikari honen onespenerekin.*

*\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

*\*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Felix Joaquin Asensio Robles zinegotziaren abstentziorekin, gehiengo absolutuz, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:


LEHENGOA.-Eba Erkizia Brion, arkitektoak eginiko Larraulgo eskolako komunen moldaketa izeneko proiektua onestea.

BIGARRENA.- Larraulgo eskolako komunen moldaketa lanak Murgil Eraikuntzak S.L.-ri esleitzea, 15.095,55 euro (BEZ-a gabe) diru-kopuruan.

HIRUGARRENA.- Murgil Eraikuntzak S.L. -ri ondorengoa jakinaraztea:

-Lanak irailaren 1-a baino lehenago bukatuak egon beharko dute, Eba Erkizia Udal Aholkulari Teknikoaren onespenerekin.





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Esleitutako prezioa itxia izango da. Ez du inolako moldaketarik izango.  
-Lanak irauten duten denboran, Udal Aholkulari Teknikoak ikuskaritza lanak egingo ditu.

LAUGARRENA.- Murgil Eraikuntzak S.L. –ri jakitera ematea, Udaletxe honetatik pasa beharko duela dagokion kontratua sinatzera.

BOSTGARRENA.- Erabaki hauen berri, Pedro Diaz Legarre, Murgil Eraikuntzak S.L. eta Ostarbi Eraikuntza eta Zerbitzuak S.L. enpresei ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA**

Ikusirik Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak aurkezturiko 2015/2016 ikasturterako aurrekontua, non Larraulgo eskolan, adinen arabera, gela batean, Gu ere bertsotan proiektua martxan jarriko da. Horren aurrekontua, sortzen den gela bakoitzaren arabera izaten denez eta beste herrietan Udaletxeak ordaintzen duenez, kasu honetan, Larraulgo Udalar 1.000,52 eurotako kostua suposatuko litzaioke.

Proiektu honen kostua, Gipuzkoako Foru Aldundiak ateratzen dituen diru-laguntzetan sartzea proposatzen da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Felix Joaquin Asensio zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengo absolutuz, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak aurkezturiko aurrekontua “Gu ere bertsotan proiektua 2015/2016 ikasturtea” onartzea. Guztira 1.000,52 eurotako gastua onesten delarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteari eta Pello Errota ikastetxeari ematea.


### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **2015 URTERAKO UDAL LANGILEEN EGUTEGIAK ONARTZEA**

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2015 ekitaldirako egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

#### ERABAKITZEN DU:



**LARRAULGO UDALA**


(GIPUZKOA)

BAKARRA: 2015 urterako Udal langileek aurkezturiko egutegiak onartzea.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

TELEFONICA	59,17
TELEFONICA	18,60
TELEFONICA	132,67
REPSOL	228,38
REPSOL	106,15
GAS NATURAL FENOSA	80,54
GAS NATURAL FENOAS	199,20
IBERDROLA	29,50
IBERDROLA	59,27
IBERDROLA	211,85
IBERDROLA	30,08
TELEFONICA	49,94
TELEFONICA	18,15
AMF COMUNICACIONES	128,44
IBERDROLA	187,79
IBERDROLA	61,31
IBERDROLA	140,00
TELEFONICA	60,42
TELEFONICA	131,73
TELEFONICA	18,81
IBERDROLA	13,72
IBERDROLA	91,61
IBERDROLA	186,28
REPSOL	22,19
REPSOL	55,38
DIONISIO ORMAZABAL	5,45
CORREOS	0,21
LASURTEGI	326,70
TINTA IMPRIMATEGIA	67,00
TINTA INPRIMATEGIA	176,22
BELAKO	30,00
TOLOMENDI	150,00
AITZOL	64,96
FERRETERIA BARBE	46,27
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.712,41
BERRI LANTEGIA	169,11



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

KEY-LAN	10,04
GOIKOETXEA ALBISU	15,90
MRW	136,75
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	64,23
LIDOINSA	861,22
CORREOS	1,50
SETALDE	109,69
BERRI LANTEGIA	39,78
AITZOL	48,72
AXA SEGUROS	365,03
IZFE	1.874,82
GIPUZKOAKO URAK	3.640,55
GIPUZKOAKO URAK	4.147,97
BULEGOAK	90,75
EBA ERKIZIA	611,28
ASTEASUKO UDALA	60,00
GALPARSORO	108,90
LIDOINSA	802,23
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.040,43
ULAHI	363,00
FERRETERIA BARBE	99,16
BERRI LANTEGIA	103,15
TOLOMENDI	150,00

Udalbatzarrak **ahoko** batez hurrengoa,

### ERABAKITZEN DU


BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **19.815,61** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### HAMARGARREN PUNTUA

#### BESTE BATZUK

#### 10.1. GUIFINET EKONSISTEMA EZARTZEKO PROIEKTUAREN ORDAINKETA

Ikusirik Oreindaingo Udalak aurkezturiko idatzia, non azaltzen duten Guifinet ekosistema ezartzeko proiektuaren egoerari irtenbide bat bilatzeko Tomas Tamayo, Adit S.L. enpresari aholkularitza lanak burutzea eskatu ziola, 2015eko martxoaren 25ean egindako bileraren ostean. Aipaturiko lanen kostua 6.776,00 euro izan delarik.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Goian aipaturiko diru kopurua Tolosaldeko eskualdean Guifi proiektua martxan duten herri guztien artean banatzea denez, Larraulgo Udaletxeari eskatzen zaio 322,66 eurotako gastua onestea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oreindaingo Udalak eginiko eskaera onestea, hau da, Gipuzkoa Shareren egoera aztertu eta irtenbidea bilatzeko eginiko aholkularitza lanen kostua onestea, Larraulgo Udalaren kasuan 322,66 euro direlarik. Gastua onesten delarik eta bere ordainketa egin dadin agintzen delarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Orendaingo udalari ematea.

### **10.2. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ATERATAKO GIPUZKOAIKT: UDALAK 2015 DEIALDIAREN BARRUAN, LARRAULGO UDAL WEBGUNEA LIFERAY PLATAFORMARA MIGRATZEA PROIEKTUA FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZA EGITEA**

Ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiak GipuzkoaIKT:Udalak 2015 deialdia kaleratu duela.

Ikusirik Larraulgo Udalak interesa duela goian aipaturiko diru-laguntza horren babesean “Larraulgo Udal webgunea Liferay plataformara migratzeko” proiektua aurkeztea, finantzazioan diru-laguntza izateko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo


### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal webgunea Liferay plataformara migratzeko proiektua onestea.

BIGARRENA: Gipuzkoa Foru Aldundiak GipuzkoaIKT: Udalak 2015 deialdiaren babesean “Larraulgo Udal webgunea Liferay plataformara migratzeko proiektua” aurkeztea, dagokion diru-laguntza eginaz.

### **HAMAIKAGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA